

FUNTSEZKO SOZIETATEAK EDO BAZKIDEAK

3 gara taldean. Bakoitzak ezaugarri ezberdinak ditu, hortaz, hobekien ematen zaion atalean jardungo du.

Ainhoa pertsona proaktiboa da. Etorkizunean sor daitezkeen egoerak aurreikusiz eta horien kontrola hartuz, sor daitezkeen arazoei irtenbideak ematen daki. Hortaz, hornitzaile eta bezeroekin hitz egin beharko du. Baita ere, bere enpresako datuak kontrolatuko ditu. Negozioan beherakadarik ikusiz gero, nola aurre egin jakin beharko du.

Anek aldiz, sinergia sortzeko gaitasuna du. Elkar-lanean aritzean, ideia hobeak sortzen direla ikusteko gaitasuna du. Bere lana taldekideen ideiak batu eta bakar bat sortzea da, non denon ideiatik zati hoberena hartu eta ahalik eta ideia egokiena sortuko duen. Hortaz, esan bezala, taldekideak izandako ideiak apuntatu beharko ditu. Ondoren bere lana hauek aztertu eta bakoitzetik hoberena artuz, oraindik eta ideia hobeagoak sortzea izango da.

Azkenik, Lara ikuspen handiko pertsona da. Gizarteak zein norabide artuko duen antzematen du eta bere enpresa egokitzen du, hau, datozen aldaketetara egokitzeko eta etekinak ateratzeko. Lararen lana, gizartean sortzen hari diren aldaketak (modak, jendearen jarrerak...) aztertzea izango da eta honako hauek gure enpresari aplikatzeko modua bilatu beharko du.